

LEHIAKETAREN OINARRIAK

ORDAINDU ZURE VISA TXARTELAREKIN ETA PARTE HARTU LEHIAKETAN: **VISA TXARTELAREKIN ORDAINTZEAK SARIA IZAN DEZAKE! 30 EUROKO KUPOIA DUZU ZAIN.**

LEHENENGOA. – ANTOLATZAILEA.

Visa Europe Management Services [(aurrerantzean, “**VISA**” edo “**Antolatzailea**”), IFK: W8264041H, eta helbidea: Plaza Pablo Picasso, Torre Picasso, Planta 16] honek lehiaketa bat jarri du abian ViaCajas Visa eta/edo Visa Electron kolektiboko txartelen titular guztientzat, baldin eta **Kutxabank** bankuaren bezero badira (aurrerantzean, “**Lehiaketa**” eta “**Erakundea**”), eta lege-oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte (aurrerantzean, “**Lege Oinarriak**”).

BIGARRENA. – LEHIAKETAN PARTE HARTZEA: ALDERDI OROKORRAK.

2.1 HELBURUA.

Lehiaketa honen helburu nagusia da Kutxabanken ViaCajas Visa kolektiboko txartelen erabilera areagotzea.

Txartel bat ViaCajas Visa eta/edo Visa Electron kolektibokoa dela ulertuko da, baldin eta txartel horrek “BIN” bat badu BINES Visa eta/edo Visa Electron tauletan alta emanda.

Horretarako, **1.000 sari** emango dira; hain zuzen ere, Repsol, Campsa eta Petronorreko gasolina-zerbitzuguneen sareari atxikitako gasolina-zerbitzuguneetan gastatzeko 30 euroko Erregai Txekoa (aurrerantzean “**Erregaitarako 30 euroko kupoiak**”), lege-oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten guztien artean.

2.2 LEHIAKETAREN ALDIA.

Lehiaketa 2023ko azaroaren 15etik abenduaren 15era bitarte izango da (aurrerantzean, “**Lehiaketaren Aldia**”).

Arrazoi justifikatuengatik edo aplikatu beharreko araudiaren ondoriozko eskakizunengatik lehiaketa bera edo lehiaketaren aldia atzeratu edo aldatu behar izanez gero, gertaera horren berri eman behar zaie parte-hartzaile guztiei, eta lege-oinarri hauen publizitate-maila bera emango zaio aldaketa horri.

2.3 PARTE HARTZEKO LEGITIMAZIOA.

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute Espainian (Balear uharteak, Kanariar uharteak, Ceuta eta Melilla ere sartzen dira) bizi diren adinez nagusiko (18 urte) pertsona fisikoek, baldin eta parte hartzeko unean **Erakundearen** baldintzak betetzen badituzte.

Parte hartu ahal izateko, parte-hartzaileek honako hauek egin behar dituzte (baldintza guztiak bete behar dira):

- ViaCajas Visa eta/edo Visa Electron kolektiboko partikularren KUTXABANK aktiboa den Visa finantza-txartel txartel baten titular izatea (kontratuaren titularra pertsona fisikoa izanik). Enpresa-txartelak lehiaketatik kanpo geratzen dira, berariaz.
- Bezero diren **Erakundearekiko** betebeharrak egunean izatea. Erakundeak lehiaketatik kanpo utzi ahal izango ditu erakundearen saldo zordunak mugaeguneratuta dituzten pertsona fisikoak, edo sustapenaren egunean kapital-zuriketa prebenitzeko fitxategietan daudenak; eta kanpoan utziko ditu datuak babesteko araudiaren arabera publizaterik ez jasotzea eskatu dutenak edo komunikazio komertzialak ez bidaltzeko fitxategi komunen batean sartuta daudenak.
- **Erakundeak** zehaztutako ordainketa-eragiketak ViaCajas Visa eta/edo Visa Electron txartel batekin egitea lehiaketaren aldian, betiere 4.2 "ORDAINKETA-ERAGIKETAK" oinarrian ezarritako eragiketen definizioaren arabera. Taula honetan zehazten dira ordainketa-eragiketak.

KUTXABANK	Lehiaketaren aldian gutxienez 150€ zenbateko metatutako erosketak egitea.
------------------	---

- Erakundearen sistemetan helbide elektronikoko baliokidun bat emana izatea.
- Kutxabankeko langileak sustapen honetatik kanpo geratuko dira.

2.4 DOAKOTASUNA.

Lehiaketan parte hartzea guztiz doakoa da, eta, beraz, parte hartu ahal izateko ez da kuotarik edo zenbateko gehigarriarik ordaindu beharrik izango lehiaketaren xede diren sariak lortzeko. Horrek ez du esan nahi aurreko atalean deskribatutako ordainketa-eragiketen gutxieneko zenbatekoa bete behar ez denik, hau da, **Erakundeak** eskatuta, lehiaketaren aldian parte-hartzaileek Viacajas Visa eta/edo Visa Electron txartel batekin egin beharreko ordainketen gutxieneko zenbatekoa.

HIRUGARRENA. –SARIAK.

Lehiaketaren Aldian, **Erregaitarako 30 euroko 1.000 kupoi** banatuko dira.

Parte-hartzaileak kontuan izan behar du kupoi horiek urtebeteko epean iraugiko direla, jaulkitzen direnetik eta irabazleari ematen zaizkionetik kontatzen hasita. Horregatik, urte hori igaro baino lehen gastatu beharko du.

Kontuan izan VISAk ez dituela zuzenean arautzen kupoiak erabiltzeko termino eta baldintzak. Informazio hori guztia jakin nahi izanez gero, kupoi horien kasuan aplikatu beharreko termino eta baldintzak arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu; hemen aurkituko dituzu:

- Erregaitarako 30 euroko kupoiak: <https://www.chequecarburante.es/>

Lehiaketaren funtsezko baldintzak nabarmen aldatzen, murrizten edo kaltetzen ez badira, sari horien ordeztzeko ezaugarriak eta balioa dituzten beste batzuk jartzeko aukera izango du Antolatzaileak, baldin eta kontrolatu ezin duen arrazoiren batengatik ezinezkoa bada saria ematea.

Sariak pertsonalak eta besterenezinak dira. Gainera, irabazleek uko egin ahal izango diote lortutako sariari, baina ezin izango dute, inolaz ere, beste batekin trukatu edo sariaren balioa eskudirutan jaso.

Lehiaketan, parte-hartzaile bakoitzak sari bakarra eskuratu ahal izango du.

LAUGARRENA. – SUSTAPENAREN MEKANIKA.

4.1 PARTE HARTZEA.

ViaCajas Visa eta/edo Visa Electron kolektiboaren txartel baten titular eta **Erakundearen** bezero direnek automatikoki parte hartuko dute lehiaketan, txartelarekin egiten duten ordainketa bakoitzarekin; izan ere, Lege Oinarriak betetzen dituzten ordainketak partaidetza gisa erregistratuko dira.

Baliozkotzat joko dira **Erakundeari** fitxategi informatikoak prestatzeko egunean sare eta erakundeekin informazioa trukatzeko dauden sistemen bitartez jakinarazitako eragiketak.

4.2 ORDAINKETA-ERAGIKETAK.

Lehiaketa honen ondorioetarako, saltokietako ordainketa-eragiketatzat hartuko dira sustapenaren aldiaren **Erakundearen** ViaCajas Visa eta/edo Visa Electron txartelean egindako ordainketa-eragiketak. Eragiketa *online* edo *off-line* izan daiteke, kontuan izan gabe eragiketa egiten den establezimenduaren entitate eskuratzailerak zein den edo eragiketa hori zein herrialdean egin den. Lehiaketa honen ondorioetarako, ordainketa-eragiketatzat hartzen dira kutxazainetan egiten diren ordainketa guztiak, hala nola mugikorrek kargatzea, sarrerak erostea eta ordainagiri eta zergak ordaintzea.

Lehiaketatik kanpo geratzen dira, berariaz, honako eragiketa hauek:

- Munduko edozein tokitako kutxazain automatikoetan eta bulegoetan eskudirua erabiltzea, diru-zorro elektronikoak kargatzea (irekiak edo itxiak) eta diru-zorro elektronikoen kontsumoa, txartel mistoa izan ala ez izan.
- Ukatu diren *online* eragiketak, ukatzeko irizpidea edozein dela ere.
- Erosketa bat itzultzeko eta deuseztatzeko eragiketak, lehiaketa egin aurretik itzuli eta deuseztatu badira. Hobarria jaso duten eragiketak osorik edo partzialki itzuli edo ezeztatzen badira, txartelean zordunduta egindako itzulketak baliogabetzeko eskubidea izango du **Erakundeak**.
- Saldoen eta azken mugimenduen kontsultak, edo **Erakundeak** bere terminalean ezarrita izan dezakeen beste edozein kontsulta.

- Iruzurrezkotzat hartzen diren eragiketak, hau da, titularrak **Erakundeak** erregelamendu bidez ezarritako prozeduraren arabera ordaindu ez dituenak.
- Txartela bera ez diren beste gailu batzuekin egindako erosketa-eragiketak: “Via T” teleordainketa interoperatiboa eta abar.
- Aurreordainketa-txartelekin egindako eragiketak; izan ere, txartel horiek anonimoak izan baitaitezke eta, izendunak izanik ere, **Erakundearen** bezero ez diren pertsonen esku egon daitezke.
- Hobaridun gasolioaren txartelekin egindako eragiketak.
- ViaCajas aplikazioan txartelei alta emateko eskatzen diren txartelak egiaztatzeko eragiketak.

4.3 IRABAZLEAK AUKERATZEKO MEKANIKA.

Sustapenaren aldian, **Erakundeak** berak ezarritako mekanikaren arabera zehaztuko ditu Lehiaketa honetako sariak lortzeko hautagai diren parte-hartzaile guztiak.

Lehiaketaren mekanika:

Astero 200 kupoi emango zaizkie aipatutako astean gutxienez 150 euroko erosketa metatuak – erosketa bakarrean edo hainbat erosketatan– egiten dituzten lehenengo 200 Visa txartelei, betiere Lege Oinarri hauetan adierazitako parte hartzeko baldintzak betetzen badituzte. Aste bakoitzaren hasieran, kontagailuak hutsetik abiarazten dira.

Titular bakoitzak behin bakarrik jaso dezake saria sustapen osoan.

Zehazki, Erakundeak mekanika honi jarraituko dio: Lege Oinarri hauetan adierazitako unean, parte-hartzaileek Lege Oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela eta, zehazki, 2.3 “*PARTE HARTZEKO LEGITIMAZIOA*” klausulan aurreikusitako eragiketak egin dituztela egiaztatuko du.

4.4 EMAITZAK JAKINARAZTEA ETA EGIAZTATZEA.

Parte-hartzaile izango direnak atera ondoren, saridunek lehiaketa honetako baldintzak betetzen dituztela egiaztatuko du **Erakundeak**, parte hartzeko hurrenkeraren arabera.

4.5 SARI-BANAKETA.

Egiaztapenak parte hartzeko hurrenkeraren arabera egin ostean, **Erakundea** irabazlearekin harremanetan jarriko da posta elektronikoz, irabazlea dela jakinaraziko dio, saria onar dezan eskatu, eta sariaren bidalketa onartzea ere eskatuko dio.

Sariak emateko egunak:

KUTXABANK	200 sari 2023/11/20ko astean, 200 sari 2023/11/27ko astean, 200 sari 2023/12/04ko astean, 200 sari 2023/12/11ko astean eta 200 sari 2023/12/18ko astean.
------------------	--

Irabazleak lortutako sariari uko egiteko eskubidea du, baina ezin izango du, inola ere, sariaren balioa eskudirutan jaso. Saria pertsonala eta besterenezina da, eta ezin izango da saria laga.

BOSGARRENA. – FISKALITATEA.

Lehiaketa honetako sariei unean-unean indarrean dagoen zerga-araudia aplikatuko zaie.

Araudi horren arabera, lehiaketa honetan parte hartzen dutenei jakinarazten zaie ondasun edo zerbitzuen salmentari edo sustapenari lotutako joko, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan parte hartzeagatik ematen diren sariak PFEZren konturako sarrerari edo atxikipenari atxikita daudela, betiere sariaren balioa 300 € baino handiagoa bada.

Aurrekoarekin lotuta, eta indarrean dagoen zerga-araudia betetz, Antolatzaileak, hala dagokionean, emandako sariari dagokion konturako sarrera egingo du eta, hala dagokionean, dagokion ziurtagiria emango du parte-hartzaileari bere zerga-betebeharrak betetzen laguntzeko, PFEZren aitorpenean sartu behar baitu jasotako sariaren eta egindako konturako diru-sarreraren errendimendua, jasotzen dituen gainerako errentekin batera, eta konturako diru-sarreraren ziurtagiri horretan agertzen den zenbatekoa kendu ahal izango da sarreraren guztizko kuotatik, jada sartuta dagoen aldetik. Antolatzailea ez da izango saria onartzeak irabazlearen fiskalitatean eragin ditzakeen ondorio fiskalen erantzule; ondorio horiek, nolana ere, irabazlearen kontura izango dira.

Parte-hartzaileei berariaz jakinarazten zaie lehiaketa honetan eskaintzen den sariaren balioa **30 €** dela (BEZa barne), eta, beraz, adierazitako betebeharrak fiskaletatik salbuetsita dagoela.

SEIGARRENA. – LEGE-OINARRIAK ONARTZEA ETA ALDATZEA.

Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du Lege Oinarri hauek osorik onartzen direla; inork Lege Oinarriok kontsultatu nahi izanez gero, hemen aurkituko ditu: www.kutxabank.es

Lege Oinarriak ez betetzeak Lehiaketatik automatikoki kanporatzea ekarriko du.

Lehiaketaren funtsezko baldintzak nabarmen aldatzen, murrizten edo kaltetzen ez badira, eta indarrean dagoen araudiak horretarako aukera ematen duen heinean, iruzurrezko partaidetza bat hautemanetz gero, Antolatzaileak Lege Oinarri hauek aldatu ahal izango ditu Lehiaketaren funtzionamendu egokia lortzeko beharrezkoak diren xedapenetan.

ZAZPIGARRENA. – JABETZA INDUSTRIALAREN ETA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK.

Lehiaketa honetako edukiak, marka eta materialak egile-eskubideen, marka erregistratuen, patenteen, sekretu komertzialen eta/edo jabetzako beste eskubide batzuen babespean daude, baita aplikatu beharreko bestelako legeen babespean ere. Eskubide horiek VISArenek, **Erakundearenak** edo haren lizentzia-emaielenak dira. Ezin da materialik kopiatu, erreproduzitu, aldatu, argitaratu, transmititu, banatu edo ustiatu trafiko ekonomikoan, ezin modutara edo ezin baliabide erabilia, baldin eta VISAk edo **Erakundeak** ez badu alde aurretik baimen idatzirik eman, Lege Oinarri hauetan adierazitakoaren arabera.

ZORTZIGARRENA. – ERANTZUKIZUNAK.

VISAk ez du bere gain hartuko zuzenean edo zeharka egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik lehiaketan parte hartzen dutenek izan ditzaketen atzerapen, galera edo narriaduren gaineko erantzukizunik. Adibide gisa –baina ez du esan nahi horretara mugatzen denik–, VISAk ez du erantzungo irabazleari sariaz osorik edo partzialki baliatzea eragotz diezaioketen ezinbesteko kasuetan (adibidez, grebak), ezta saria baliatu bitartean parte-hartzaile bati kalteak eta galerak eragiten zaizkionean ere, eta hor sartzen dira **Erakundeak** Lege Oinarriak betetzen ez dituen kasuak ere.

Erakundeak eta sarien kudeatzaileak ez dute erantzukizunik izango posta elektronikoei edo hirugarrenei egotz dakiekeen galera, narriadura, lapurreta, atzerapen edo beste edozein inguruabarren aurrean, baldin eta horrek eragina izan badezake bezeroei jakinarazpenak eta sariak helarazteko bidalketetan eta transakzioetan; hor sartzen dira Visa Lege Oinarriak betetzen ez dituen kasuak, eta ez du bere gain hartuko, ezta ere, parte-hartzaileak sustapen honetatik lortzen duen sariari ematen dion erabileraren erantzukizuna.

Era berean, saridun parte-hartzaile baten datuetan akats bat dagoenean eta, horren ondorioz, pertsona hori ezin bada identifikatu/aurkitu eta, horrenbestez, ezin bazaio saria eman, KUTXABANK saria ematetik salbuetsita geldituko da eta ez du beste inolako erantzukizunik izango.

BEDERATZIGARRENA. – IRUZURRA.

Lehiaketa honekin lotura profesionala duen edozein **Erakundek** anomaliaren bat hautematen badu, edo parte-hartzaile bat lehiaketa honetan normaltasunez parte hartzea eragozten ari dela susmatzen badu, edo, bere parte-hartzea faltsutzeko asmoz, edozein prozedura tekniko edo informatiko erabilita, parte-hartzaile bat bere erregistroa edo parte-hartzea legez kanpo aldatzen ari dela susmatzen badu, parte-hartzaile horren erregistroa bere kabuz ezabatu ahal izango du.

Horri dagokionez, garrantzitsua da aipatzea **Erakundeak** Lehiaketa honetako parte-hartzea aldatzea xede duen iruzurrezko, ezohiko edo dolozko edozein balizko ekintza hautemateko beharrezkoak diren baliabide teknologikoak gaitu dituela, ekintza horren helburua sari bat legez kontra lortzea izanik.

Beraz, deskribatutakoaren moduko jarduketa irregularren bat egin izana frogatzen edo susmatzen duen edozein parte-hartzaile erregistrotik ezabatzeko eskubidea izango du **Erakundeak**, hari inolako jakinarazpenik egin gabe.

HAMARGARRENA. – DATU PERTSONALEN BABESA.

“Lehiaketan parte hartzeko, ez da beharrezkoa Antolatzaileak datu pertsonalen tratamendurik egitea. Parte-hartzea Kutxabankek kudeatuko du.

Lehiaketan parte hartuz gero, parte-hartzaileen datu pertsonalak Kutxabanken Informazio Sisteman sartuko dira, parte-hartze hori kudeatzeko.

Era berean, datu pertsonalen tratamenduekin zerikusia duen eztabaidarik sortuz gero, edozein unetan kontrol-agintaritzan erreklamazioa aurkez daitekeela jakinarazten da, eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, datuen tratamendua mugatzeko, eramangarritasunerako eta datu pertsonalei dagozkien banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubideak ere baliatu daitezke. Eskubide horiek baliatu ahal izateko, komunikazio idatzi bat bidali behar da Kutxabanken egoitza sozialera edo info@kutxabank.es helbide elektronikora; kasu batean zein bestean, nortasuna egiaztatzen duen dokumentuaren kopia bat atxiki behar da. Zure ustez, zure datu pertsonalak ez baditugu arauen arabera tratatu, Datuak Babesteko ordezkariekin harremanetan jar zaitezke, helbide honetan: dpo@grupokutxabank.com.

Datuak Babesteari buruzko informazio gehiago eta zehatzagoa kontsultatzeko, gure webguneko “Pribatutasuna” atalera jo dezakezu: www.kutxabank.es.”

HAMAIKAGARRENA. – APLIKATU BEHARREKO ZUZENBIDEA ETA JURISDIKZIOA.

Lege Oinarriak Espainiako legedia erkideak arautzen ditu.

Lege-oinarri hauen edo lehiaketaren inguruan sor daitekeen edozein eztabaida Madrilgo hiriko auzitegi eskudunetan ebatziko da, eta, lehiaketan parte hartzen duenak edo erreklamatazaileak kontsumitzaile gisa jarduten badu, kontsumitzaile edo erabiltzaile gisa dagokion helbideko auzitegian.

Kontsumitzaile gisa jardunez gero, lehiaketan parte hartzen duenak edo erreklamaziogileak Lege Oinarriekin edo lehiaketarekin lotutako edo horien ondoriozko edozein tirabira gatazkak ebazteko beste prozedura bati atxiki ahal izango dio (“**ADR**”). Europako Batzordeak eskaintzen dituen ADR plataformen zerrenda esteka honetan kontsulta daiteke: <https://webgate.ec.europa.eu/odr/main/index.cfm?event=main.home.chooseLanguage> .

HAMABIGARRENA. – HARREMANETARAKO.

Lege Oinarri hauei buruzko edozein zalantza argitu edo edozein kontsulta egin nahi izanez gero, jar zaitez zure **Erakundearekin** harremanetan, horretarako eskaintzen dituen kanalak erabilita.

2023ko azaroaren 14a.

* * *